

**NORK: OSAKIDETZAKO ZUZENDARI NAGUSIA****NORI: ZERBITZU-ERAKUNDEETAKO ZUZENDARITZA GERENTEAK ETA
PERTSONALEKO ZUZENDARITZAK****GAIA: ASTEKO ATSEDENALDI ETENGABEA LARUNBATEKO GUARDIAREN
OSTEAN**

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2003ko azaroaren 4ko 2003/88/EE Zuzentarauak, lan-denboraren antolamenduaren zenbait alderdiri buruzkoak, honako hau ezartzen du 5. artikuluan: estatu kideek beharrezko neurriak hartuko dituzte langile guztiek, zazpi eguneko aldi bakoitzeko, gutxienez 24 orduko atsedenaldi etengabea izan dezaten, eta, horri, aipatutako zuzentarauaren 3. artikuluan ezarritako eguneko 11 atsedeen-orduak gehituko zaizkio.

Zuzentzari horren helburua enplegatuaren segurtasuna eta osasuna modu eraginkorrean babestea da, eta, hartara, xedatzen du txandakatzeko bat egongo dela atsedenaldirik baten eta lan-aldirik baten artean. Horretarako, langileak lan-inguruetatik aldentzeko aukera izan behar du lan-aldirik baten ondorengoko segidako ordu kopuru jakin batean, entretenitu ahal izateko eta laneko zereginetik dakarten berezko nekea kendu ahal izateko. Horrez gain, asteoko atsedenaldirik baten helburua laneko arriskuak prebenitzea eta langileen segurtasun- eta osasun-arloko babesa eta prebentzioa bermatzea da.

Bestalde, abenduaren 16ko 55/2003 Legearen, Osasun-zerbitzuetako estatutupeko langileen esparru-estatutua onartu zuenaren, 52.1. artikuluan ezartzen da langileek eskubidea izango dutela asteen batez bestez 24 orduko atsedenaldirik baten etengabea hartzeko gutxienez, eta tarte hori luzatu egingo dela 51.2 artikuluan aurreikusitako eguneko 12 orduko gutxienez atsedenaldirik baten. Era berean, lege horren bigarren xedapen gehigarriak adierazten duenaren arabera, osasun-zerbitzuetan zuzenean kudeatzen dituzten osasun-zentro eta -zerbitzuetako osasun-langileei aplikatuko zaie osasun-zerbitzuetako estatutupeko langileen esparru-estatutuan jasotako atsedeen-erregimena, haien lan-harremanaren lotura juridikoa edozein dela ere.

Igande goizeko 08:00etan amaitzen diren larunbatetako presentzia fisikoko guardien erregimenak dakar horiek egiten dituzten fakultatiboei aitortu egin behar zaiela arestian aipatutako asteoko atsedenaldirik baten etengabea. Horretarako, Auzitegi Gorenen 1999ko irailaren 22ko, 1999ko azaroaren 22ko eta 2000ko martxoaren 31ko epaiek, doktrina bateratzeko kasazio-errekurtsoetan emandakoek, ezarri zuten 36 orduko beharrezko atsedenaldirik baten etengabea ez zela beteko guardia larunbatean egin zen kasuetan, eta Estatuko Osasun Administrazioaren eta ordezkarien gehien duten sindikatuen arteko 1992ko otsailaren 22ko Erabakira jo zen, zeinaren bidez sektorean INSALUDen mendeko osasun-erakundeetako lanbide-, ekonomia- eta antolaketa-alderdiei buruzko zenbait esparru adierazgarri arautzen diren (1992ko uztailaren 3an



argitaratu zen BOEn). Erabaki horren arabera, langileek astean gutxienez 36 orduko atsedenaldi etengabea izateko eskubidea dute, inolako baldintzarik gabe, bai beren osasuna zaintzeko, bai beharrezkoak ez diren arriskuak saihesteko. Doktrina horri jarraikiz, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiak 1083/2019 epaia eman zuen, ekainaren 4koa.

Horregatik, araudian adierazitako eta jurisprudentiak berretsitako atsedenaldi etengabea babestu eta bermatzeko, hona hemen

INSTRUKZIOA:

1.- Aplikazio-eremua

Instrukzio hau igande goizean amaitzen diren larunbatetan presentzia fisikoko guardia egiten dituzten Osakidetza fakultatiboei aplikatuko zaie, egoiliarak barne.

2.- Asteko atsedenaldia

Aurreko egoeran daudenak eskubidea izango dute larunbateko guardia amaitu eta segidako 36 orduko atsedenaldi etengabea izateko, gutxienez. Horrek esan nahi du astelehenerik libre egongo direla, eta, beraz, karteldegia araberan lan egin behar duten atsedenaldi horren biharamunean itzuliko dira lanera.

Behar bezala justifikatutako antolaketa-arrazoiengatik edo zerbitzu asistentziala mantentzeagatik, larunbateko presentzia fisikoko guardia amaitu eta segituan asteko gutxieneko atsedenaldia hartzea eragozten bada, salbuespen gisa, langileek 72 orduko atsedenaldi etengabea izango dute, gutxienez, 14 eguneko epean.

Nolanahi ere, adierazitako atsedenaldirik ezin izango da inolako jarduerarik profesionalik egin.

3.- Indarrean jartzea

Instrukzio hau 2020ko otsailaren 1ean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2020ko urtarrilaren 29an



Iz.: **JUAN LUIS DIEGO CASALS**

OSAKIDETZAKO ZUZENDARI NAGUSIA